

## Amamaren herria

–Begira, amama! Argazki honetan gure herria azaltzen da. Zer txikia zen, e!  
–Bai. Oso txikia zen. Lehen, baserri asko zeuden, baina gaur ia ez dago baserririk. Ia denak bota dituzte eta eraikin berriak egin dituzte.

–Ui, zer egiten zuen udaltzainak hor? Bidegurutzearen erdian zegoen!  
–Bai, hau 60ko hamarkadakoa da. Trafiko handia zegoen eta bidegurutzearen erdi-erdian plataforma antzeko bat zegoen, udaltzainek trafikoa antolatzen. Ez zegoen semafororik!  
–A zer gauza bitxia!

–Begira, hemen, udaletxe aurrean, lehen, herriko eskola eta Juanitoren taberna zeuden.  
–Orain, zer dago hor?  
–Dantza-taldekoen lokala dago hor.  
–Eta, atzean, zer zegoen?  
–Atzean, iturria eta garbilekua zeuden.

–Amama, hemen zu agertuko zara, dantza-taldekoak dira!  
–Ba, ez, egun horretan gaixo nengoen. Ondo gogoratzen dut egun hori!  
–A zer memoria!  
–Orduan argazki gutxi ateratzen ziren, neska! Baina aitona bazegoen, bai!  
–Zein da, gazte bizkarzabal ilebeltz hau? Nik ileurdin ezagutu dut!  
–Bai, horixe da aitona! Ze ederra zen!  
–Hara, eraikin handi hau zer zen, kultura-etxea?  
–Ez, garai hartan kultura-etxea elizaren ondoan zegoen. Etxe horretan udaleko bulegoak eta medikuaren kontsulta zeuden. Bi palmondo handi zeuden, baina haizeak bota zituen. Zer pena!